

**Kepa Sarasola Gabiola**  
Informatikaria



*“Euskaldunok ez goaz trenaren buruko bagoian, baina ez dugu galdu tren hori”*

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Kepa Sarasola Gabiola (Begoña, 1958) Zientzia Fisikoetan lizentziatua da, doktore Informatikan, Euskal Herriko Unibertsitateko informatika-irakaslea eta Ixa Taldearen sortzaileetako bat. 1980. urtetik, Udako Euskal Unibertsitatean dabil, eta, 2018ko otsailaren 24tik, UEUren zuzendari berria da.

Lanez gainezka dabilen arren, adeitsu hartu gaitu. Izan ere, beti laguntzeko prest dauden horietakoa da Sarasola. Hala, ohikoa duen bizitasunaz eta bere arlotik atera gabe erantzun die galderei.

---

## *Zerk harritu, asaldatu edo txunditu zaitu gehien, lanean hasi zinenetik?*

Interneten informazioa bilatzeko erraztasunak. Interneteko nabigatzaileek gaur egun ematen diguten laguntza amets utopikoa zen orain dela 30 urte.

Informazio asko dago Interneten, eta Google-ri galdetuta gehienetan lortzen dugu nahi genuen datua, argazkia edo testua. Horri esker, zientzia eta teknologiaren garapena askoz bizkorragoa da gaur egun. Lehen artikulua interesgarri bat lortzeko aste batzuk behar zenituen, gaur egun minutu edo segundo kontua izaten da.

Gainera, bilatzaile horiek hizkuntzaren prozesamenduko teknologia erabiltzen dute. Aspaldian, gutxi ematen zioten garrantzia guk Ixa Taldean garatzen dugun teknologiari. Gaur egunean Google da teknologia horren erabiltzaile nagusia, eta, horri esker, askoz emaitza hobekak lortzen ditu. Eskerrak euskara ere landu izan dugun teknologia horretan; euskaldunok ez goaz trenaren buruko bagoian, baina ez dugu galdu tren hori.

## *Zer iraultzaren edo aurkikuntzaren lekuko izan nahiko zenuke zure ibilbidean?*

Amesten dut Cuscoko kalean kartel guztiak kexue-raz bakarrik egotea eta nik nire mugikorrean hor jartzen duena euskaraz ikusi edo entzun ahal izatea. Noski, era berean, Bilboko kalean kartel guztiak euskaraz bakarrik egotea ere bai, eta Peruko gure lagunek mugikorrean kartel horiek kexue-raz ikusi edo entzun ahal izatea, katalanek katalanez, eta ingelesek ingelesez.

Hau da, itzulpen automatiko hobekak bati esker, giza itzulitzaileek hirian idatzita dagoen guztia ondo itzulita eskaini ahal izango digutela amesten dut.

Konputagailuek eta robotek hobeto itzuliko dute, gure mundu erreala hobeto ezagutuko dutelako, Wikipedia/Wikidata erraldoiak online kontsultatu ahal izango dituztelako, eta esaldien esanahiak bektore moduan errepresentatuta errazago asmatuko dutelako. ●